

# Nafarkaria

Nafarroako gehiagarria / Ostirala, 1994ko maiatzaren 20a / IV. urtea / 128. zenbakia

## Armendariz, lau urte geroago Etxearen geografia

JUANJO OLASAGARRE

Duela lau urte errodatu zuen Montxo Armendariz zinema zuzendariak bere azken pelikula: 'Las cartas de Alou'. Askok ia ahantzita izango badute ere, duela gutxi estreinatu da Islandia, Taiwan eta Kuban, aldeko kritika oparoekin. Lau urte. Askotxo. Denbora honetan guztian proiekturik falta izan ez badu ere, joan den apirilean ikusi zuen luzemetraia egiteko aukera, eta halaxe. Jose Angel Mañasen 'Historias del Kronen' liburuan oinarriturik, gaur egungo gaztediari buruzko pelikula hasiko da errodatzen heldu den abuztuan, Madrilen. Hori dela eta, hontaz eta hartaz mintzatu zaigu iruindarra, eta zineman den egoera izan du ardatz. «Ilusioa eta abenturarako gogoia galdu dira», dio.



### Duintasuna


**Z**er eginen ote zuen Mirandek kinka horretan? Seguru ez zutela horrelako batean harapatuko. Ezta urrik ere. Jakina da Mirandek JELkideei zien gorrotoa, jakina da norainoko amorrua zion kristautasuna eta bere moralkeria guztiari, izanaren zurikeria baino ez den duintasunari. Samin egin zuen irri Agirre lehendakariak eta gerra galduagatik arrazoia zutela esanen ziotenean, karakailetan lehertuko zen txapel handi kristau zintzo guzti haiek Senako ibai ertzetik aitak errietan egindako umeak bezain deslaxatuz pasatzen ikustean.

Ezkerrak jarauntsi zuen duintasunaren konzeptu hori. Gizontasunaren legeak Jainkoaren legea ordezkatu zuen eta orain, badirudi, duintasunak euskararena, ze duintasunagatik ez omen zituen baietsi HB-k Vasuencearen legeari egin nahi zitzaizkion aldaketa nimitxo bezain eskasak. Euskaldun guztion eta banakoon duintasuna ulertu beharko genuke ala HBren iharduera politikoa? Bietan ere galtzailearen duintasunaz mintzo gara, zenbakien diktadura den demokrazia honetako gutxiengoaz, ezinbestean duintasuna baino ez duenaz. Bere buruaren errespetoa baizik ez omen du horrek, errespetoa eta irabazlearen legetara egokitutako halako zintzotasun jator bat.

Hori ez da duintasuna, hori ergelkeria (barkatu) baino ez da ezen galtzaileak zikina izan behar baitu, azpikotatzen trebe, maltzurra, eta batez ere praktikoa, praktikoa bere helburura dituen bideak zabaltzen, eta behar denean estaltzen.

Vasucearen legea exkasa dela, bai, erreserban sartu duela euskara, bai, UPN-PSOE-ek euskara museoko tramankulu bihurtu nahi dutela, bai, partidu horiek bere euskararekiko jarreran ez dutela izenik ere merezi, baietz eta baietz, aldaketak legearen arabekoak zirela, bai, ez zutela ia deus aldatuko, jakina, dudarik gabe. Baina bozketaren aurrean argumentu gisa goiko horiek erabiltzea erretorika hutsa da. Ume bakar bat ere euskaldundu balitz aldaketa horiekin, nahikoa.

Badaukagu, beraz, duintasuna, hezurretaraino sartua, hemendik aurrera zer?



Montxo Armendariz, Iruñeko karriketan.



### BERTSO SAIOAK

**Amaia Telletxea** Xabier Amuriza eta Manolo Aroza bertsolarien emanaldia izanen da bihar larunbata, maiatzak 21, Iruñeko Arrano Elkartearen. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 21.00etan hasiko da.

**Estitxu Aroza** eta Bittor Elizagoien bertsolariak ariko dira igande honetan, maiatzak 22, Leitzako herriko plazan. Udalerri Euskaldunen Eguna dela medio antolatua, bi saiotan izanen da: bata eguerdiko 12.30etan eta bestea bazkal ostean.

### MUSIKA

**Izugarri** musika folk taldeak emanaldia eskainiko du gaur ostirala, hilak 20, Iruñeko Aita Salestarren aretoan. Gaueko 21.00etan hasita, udalak antolatzen duen Bedatseko Giroa programazio barruan antolatua dago.

**Kaxiano** musikariaren emanaldia izanen da gaur, maiatzak 20, Zizur Nagusiko Kultur Etxean, gaueko 22.00etatik aurrera.

**Angel Barrikarte** abeslariaren emanaldia izanen da gaur, maiatzak 20, Tafallako Kultur Etxean. Kultur Patronatoak antolatua, arratsaldeko 20.00etan hasiko da. Adela Martin piano jolearen laguntza izanen du Barrikartek.

### ANTZERKIA

**'Xarivari'** izeneko antzezlanaren taularatuko du asteburu honetan Teatre Mobil taldeak Barillas eta Zizur Nagusia herrian, Udaberriko Bira programazioaren barruan. Bihar larunbata, eta arratsaldeko 18.00etatik aurrera, Barillasko plazan eskainiko dute bere lana, eta etzi, igandean, Zizur Nagusiko pilotalekuan, eguerdiko 12.00etan.

**Bajo la arena** antzerki taldeak 'El flautista de Hamelin' izeneko lana aurkeztuko du igande honetan, hilak 22, Mutiloabeiti herrian. Bertako jaien programazio barruan, arratsaldeko 17.30etan hasiko da, herriko plazan.

### ZINEMA

**'Una proposición indecente'** izenburuko pelikula eskainiko dute heldu den ostegunean, maiatzak 26, Tafallako zineman. Herriko Kultur Patronatoak antolatuta, bi saiotan botako dute: bata arratsaldeko 20.00etan eta bestea gaueko 10.30etan. Sarreak 200 pezetan salduko dituzte.

## NAFAR KRONIKA

ANA UNANUE

### Ez du balio

Ikerketa batzordearen kontuak ilusio pixka bat egiten zidala aitortu behar dut. Ez da kristau zintzoaren jarra izango, baina... denok ditugu geure miseriak, ezta? Batez ere noizbait min egin badizute. Eta orain kolokan dauden horiek egunkari honen deiei ez erantzuteko agindua eman zu-

batzordeak Huarteren adjudikazioak besterik ez ditu aztertuko. Ez du Gabriel Urralbururen eta Antonio Aragonen ondarea ikertzerik izango. Badirudi gure parlamentarien buruan alde bakarreko mese-deak sartzen direla, Nafarroako Gobernuak ustez Huarteri egin zizkionak alegia. Alde

gearen lekua hartzen duenean fundamentalismoa nagusitzen da eta», ohartarazi zuen ezinbestean ikerketaren aldeko botoa emango zutela iragarri ondoren.

Eta horrek ez du balio. Epaitzietan bai agian, baina Parlamentua ez dute Sarasate pasealekura eraman oraindik.



ten euren alderdiaren egoitzan. Norbaitek alde aurretik epaitzen zaituenean zaila da zeuk ere aurriritzirik ez izatea.

Mendeku egarría? Baliteke, baina ez izan beldurrik, ez da aukerarik izango eta. Ikerketa batzordea hilda jaió zen. Sozialistek agintzen zutenaren faborezko tratuerik izan ote zen argitu behar zuen berez, edo hori ulertu genuen behintzat zenbait inozok. Ez da horrela:

bakarrekoak eta debaldekoak, orduan agintzen zutenek trukean zerbait jaso ote zuten aztertzearen aurka azaldu baitira.

Ikertu beharreko gaiei hamaika hesi jartzeaz gain, Aladino Colin alderdi sozialistako bozeramaileak ongi zehaztu zituen jokoaren arauak, bere arauak, jolasean hasi aurretik. «Ez dugu balorazio moralik onartuko. Legea besterik ez dugu onartuko, moralak le-

Erantzukizun politikoak eskatzeko ez dira delituak behar. Horrela balitz, dimisioa aurkeztu duten guztiek kartzelan egon beharke lukete. Ez daude, baina, eratzukizun politikoak eskatzeko aski delako norbaitek behar bezala ez duela jokatu frogatzea eta, jendearen zuzentasuna baloratzen hasiz gero, nahitaez agertuko zaigu moralak, etika edo dena delakoa.

### ASTEKO PERTSONAIK



**Jose Mari Bakero**  
Futbol jokalaria

Ez zuen goizuetarrak gauza handirik egiterik izan asteazkeneko partiduan, bere taldearekin batera izugarritzko jipoia jaso zuenean Milanen aurka. Bera da taldearen arima eta kapitaina eta Cruyff entrenatzaileari diskutitzea daukan bakarra, baina ez zuen gauza handirik egiterik izan. Aurretik esana zuen kokoteraino zegoela Milanekin, beti gogoratzen zutela haiekin ez zutela inoiz irabazi, eta oraingoan izango zela. Hurrengoan izan beharko. Barcelonaren akats guztiak gelditu ziren agerian Atenaseko finalean eta bertute bakar bat ere ez zitzaien ikusi. Milan taldekoei, berriz, aldeko guztiak antzeman zitzaizkien, eta akats bakar bat ere ez, perfektuak bailiran. Ez da hainbesterako, baina garbi gelditu zen oraindik italiarrak nagusi direla, behintzat finaletan.



**Helena Taberna**  
Zinema zuzendaria

Zinemagile altsasuarra aspaldi honetan ari da jo ta ke laburmetrai, dokumental eta Nafarroako Gobernurako lanekin. Esan daiteke bera dela Nafarroan une honetan gehien filmatzen duena. Azken proiektuak Altsasu bera izango du abiapuntua, eta bereziki herrian marka handia utzi zuen Marino Aierra apaiza. 36ko guda eta ondotik izan zen giroan gudaren ginetik gizentasuna eta herritar guztien arteko errespetua azpimarratu zuen beti On Marinok, eta bere gogoetak ondoren ateratu zen 'No me avergonze del evangelio' liburuan azaldu zituen. Liburu hori altsasuar askoren mesanotxean egon zen urte luzeetan. 'Alsasua 1936' izango da pelikularen titulua, eta horretarako aktore bila ari da Helena Taberna inguruan.

### AHAZTU GABE!

### KULTUR ASTEA

**Barañaingo Haizea** Kultur Elkarteak ekitaldi bereziak antolatu ditu asteburu honetarako. Elkarteak Eguna ospatzen du bihar, larunbata, eta aurretik ere prestatu dituzte hainbat gauza. Gaur arratsaldean diapositiba emanaldia izanen da, 'Mendi zintzurak' gaiari buruzkoak. Haizea Elkartearen bertan, arratsaldeko 20.00etan hasiko da, Koldo Aldaz mendigoizalearen hitzez lagundurik. Bihar, egun nagusian, Herri Krosa antolatu dute goizeko 10.00etan, Barañaingo Lakuaren inguruan. Bi mailako krosa izanen da: gaztetxoak, 1.600 metro egin beharreko lasterketan, eta helduak, 6.300 metroko zirkuitoan. Parte hartu nahi dutenek Zurrunka disko denda, euskaltegia, Barañaingo kirol denda edo Muruzabal denda eman behar dute izena. Honen ostean, bertso bazkaria prestatu du Elkarteak, Estitxu Aroza eta Amaia Telletxea bertsolari gazteekin. Edozeinentzat irekia, 2.500 pezetako txartelak jarri dituzte salgai, Zurrunka disketxea eta Euskaltegia.

### JENERO XUMEKOAK

#### Bat eta bi eta hiru eta lau

Txominek andrea faltan dauka. Txominek dauka denda sagar ustelaz beteta, sagar ustelak salduko dituen topatuko du andrea. Bat eta bi eta hiru eta lau.

ELIAS SARASA - ERRO

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien ginetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...





### Leitza


## Inguruko euskara ikertzeko beka

PATXI ULAIAR / LEITZA

Leitzako Udalak inguruko euskarari buruzko ikerketa egiteko beka deialdia onartu berri du, bertako hizkuntz barietatea jaso, aztertu eta sendotzeko. Beka deialdiaren helburua Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako euskarari buruzko ikerketa lan globala da, eta bi zatitan banatuko da: 1994an eta 1995ean. Beka 800.000 pezetakoa izanen da, eta lana egiteko epea 14 hilabetekoa.

Lan hau egiteko nahia euskararen normalkuntzaren inguruan egiten ari diren ahaleginek bideratu dute. Euskara gizarte bizitzako esparruetara zabaltzen ari den honetan behar-beharrezkotzat jotzen du Leitzako Udalak bertako barietatea jaso, ezagutu eta gordetzea, «euskararekik o atxikimendu naturala etxean jasotako euskararen bidez eskuratzen baitute gehienetan herri-tarrek». Orain arte ez da inoiz inguruko euskarari buruz lan monografikorik egin, eta hizkuntza urteotan jasaten ari den nekeak ikusirik, komenigarria iritzi diote ikerketa lanari ekiteari.

Helburu zenbait ditu egitasmoak. Lehendabizi, herritarren euskararekiko atxikimendua indartu eta sustatzea. Beka deialdian agertzen denez, herritarrek hurbilen sentitzen dutena etxean ikasitako euskara da eta kasu askotan hori da ezagutzen duten aldaera bakarra. «Beraz, motibazioa sendotzeko oso komeni-



Inguruko euskarari buruzko azterketak erabilera franko izanen ditu.

garria izanen da bertako euskalkia prestigiatzea». Halaber, herritarren memoria historikoa gorde eta aberastu nahi da, eta eskola nahiz euskaltegiko irakasleei bertako hizkera hobeki ezagutzeko aukera eman, haur eta ikasleei transmititu eta gazteek ere ondare hori jaso dezaten. Halaber, galtzeko arriskuan dauden forma eta esaerak gorde nahi dira lan honen bidez.

**EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK TXERTATU** Lan honetan bildurikoarekin herrian eginen den edozein jar-

duera osatu, apaindu eta aurkezteko material egokia eduki nahi da, nahi adina ekimen sartu ahal izateko: ekitaldi publikoak, bes-telako egitarauak, bandoak, kultur ekintzak... Orobat, euskarazko komunikabideak herrian hobeki txerta daitezten lagundu nahi da. «Ttipi-Ttapak eta Karrape Irratiak egiten duten lanaren arrakastaren gako hurbiltasunean datza, eta horretan sakontzeko erakargarritasun handiagoa lortzeko bide egokia izanen da herri komunikabide hauetan bertako euskararen aberastasuna txertatzea».

Ikerketaren edukinak Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako euskararen ahozko euskara jaso beharko du, Euskaltzaindiaren irizpideen arabera, eta aditza (hitanoa barne), deklinabideak, fonetika, hiztegia, esaerak eta esaera zaharrak ere jaso beharko dira. Halaber, bertako euskararen idatzitako testu edo dokumentuen inbentarioa egin beharko da, hau da, herriotako euskararen idatzita dauden testuen zerrenda.

### Zangoza

## Euskararen aldeko jaiak bihar

ZANGOZA

Bihar, larunbata, ospatuko da herrian euskararen aldeko jaiak, bertako AEK-ko ikasleek antolatuta. Goizean hasiko da egitaraua, Tequerre irradian izango den euskarazko bi orduko emanaldiarekin, eta gero antzezlanaren aurkeztuko dute Iruñeko Sanduzelaiko taldekoek. Txokolatada izango da jarraian umeendako, eta herri kirolak ondoren. Arratsaldean Otsagi eta Zangozako dantzariak emanaldia eskainiko dute, eta horren ondotik herri afaria izanen da.

### Donibane-Garazi

## Goizeko Izarra pilota batasunaren biltzarra burutu da Herriko Etxean

L.E. / BAIONA

Nafarroa Behereko Garazi Ipar Euskal herriko pilotaren harrobi ezaguna da aspaldiko urteetan, batez ere esku huskako jokoetan. Garaziko taldearen egoera eta bere pilota leku aipatua, Garat trinketearena aipatu ziren berriki ospatu Biltzar Nagusian. Goizeko Izarra pilota batasunaren Biltzarra Donibane Garaziko Herriko Etxean iragan zen, Edouard Mayte lehendakariaren eta bulegoko partaideen kidezarekin. Tokiko deputatu eta Departamenduko Kontseilari den Michel Intxauspe ere buruzagien mahainean jarria zen Mendiburu eta Idiat Donibane-

ko auzapezordeekin batera. Ehun bat lagunek, gehien bat pilotari edo pilotari ohiek Biltzarrean parte hartu zuten.

Pilota elkarte baten egoera partez emaitzetarik, lehiaketa eta txapelketen emaitzetarik neurtzen dira. Goizeko Izarraren balantzea mail horretan guziz baikorra agertu dute. Trinketearen Frantziako txapelkun agertu ziren. Profesionalek, 'berekoetara' pasatuak diren bi elkarreko pilotariek, Francis Karrikart eta Jean Claude Bizkubik, berezkoen sailean Frantziako txapelkun atera ziren ere. Esku huskatik aparte, abuztuko 'Pilotako Aste Handian', Frantziako Federakuntzak antolatu finaleran

hiru finala irabazi ziren gainera: gazteetan joko garbian, atxiki handian gaztetxo eta gazteentzat. Garat trinketearen egoera sanoa aipatu zen ere Biltzar Nagusian. Donibaneko trinkete aipatuan ohizko partidua astelehenera, merkatu egunetan, egiten dira, beti jendetsuak.

**GOIZANE**

**JATETXE BEGETARIANO**

Irunlarrea kalea, 6-8 (Urgentzien aurrean),  
Virgen del Camino Ospitalea Tf: 948-26 39 27 IRUÑEA

*Te areto integrala*

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



## Gatorade berria

Maiatzak 15, igandea, arratsaldeko bostak, Iruñeko Alde Zaharra. Pilotalekuko kantxan Espainiako gazte mailako esku-pilota txapelkunak. Harmailetan giro beroa, eta porlan apurrik txikiena ere ez agerian. Jazarlekuen atzean ikusle franko norgehiagoka interesgarria zutik ikusten. Oihuak eta algarak nagusi. Batzuk gerriko gorridunen aldekoak. Besteak, aldiz, urdindunen aldekoak. Egon badago, irribarretsu, «mil colorau» oihukatzen duen norbait.

Tanto luze bezain polita. Dozenaka pilotakada eman ostean, atzelari urdinak ez du pilota behar bezala harrotu. Aurrelari gorriak airean harrapatu du, eta hormabiko itzel baten bitartez tantoa egin. Tantoa, beraz, gorrientzat, eta lau pilotarientzat atsedenditxoa. Aulkietarantz joan dira. Horieta euren zain diren botilerok ez daukate ohizko tankera. Belarritakoak darumatate eta zurrutoetan bildutako kima luzeak. Pilotariei, gainera, ez diete Belaskoingo ura ematen, ezta edari isotoniko horietako bat ere. Kalimotxo ematen diete, eta pilotariek gustura onartzen dute gainera. Demasa!

— Kalimotxo al da Gatorade berria? Antzeman al diote zientzialariek kalimotxoari propietate berezi eta ezkuturen bat? Ez, tamalez ez, oraingoz kakalarria eragiteko aproposa dela besterik ez. Orduan, zer dela eta kalimotxo pilotariei? Bada, pilotariak alde zaharreko pilotaleku batean badira ere, ez dira Labrit aldapa 'bomboneran' jokatzeko ari, baizik eta San Agustin kaleko Euskal Jai zaharrean, Iruñeko Gazte Asanbladak Gaztetxe bilakatu duen horretan. IGAKoek azken asteotan agerian utzi dutenez, Gaztetxeek parrandan ibiltzeko baino zerbait gehiagorako balio dute; esaterako, bideo eta pelikulak pantailaratzeko, antzerki obrak taularatzeko, hitzaldiak emateko, kontzertuak egiteko eta, Gaztetxea pilotaleku izana baldin bada, goi mailako pilota partidu berezi samarra antolatzeko. Berriz diot, demasa. Espe-ro dezagun Argiñano jaunak pilotariei kalimotxo edatearena barkatzea.



ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Montxo Armendariz 'Gernika-ren', Iñaki Elizalde gaztearen lehen laburmetraia, aurkezpean izan zen joan den larunbatean, Iruñean. Ez zen jende asko azaldu Golem zinemetan egin zen ekitaldira, baina han zegoen 'Tasio-ren' zuzendaria. «Ilusioz eta animo handiz» egin den lan honi bere laguntza ematera etorri zela zioen, eta protagonismoa uxatu nahian, ez zuen erantzun nahi izan bere proiektuei buruz egin zioten galderari. Aurkezpean Picassoren koadroaren inguruko laburmetraia soinuak harritu egin zuela zioen, eta garbi mintzatu zitzaigun laburmetraia baloreez. «Laburmetraia bezala pelikula dira. Kalitateak ez du zerikusirik luzerarekin, pelikulan dauden ezaugarri zinematografikoekin baizik. Hori da funtsezkoena».

**EGUNKARIA.**— Zergatik ematen zaio hain garrantzi gutxi laburmetraia?

**MONTXO ARMENDARIZ.**— Betiko ustea izan da laburmetraia dela luzemetraia egin ahal izateko eskola. Batez ere hemen, ez baitago zinema eskola ofizialik. Inork ez dauka inolako titulurik, eta horregatik laburmetraia da pelikula handiak egiteko bide ia bakarra. Filme luze bat bat-batean egin nahi duenak ausarta izan behar du.

**EGUNKARIA.**— Zergatik? Egoizleak ez direlako fio?

**ARMENDARIZ.**— Egoizleak ez dute arriskatu ezer egin ez duen batekin. Laburmetraia dira aurkezpen txartelak, eta emaitza polita ateraz gero, askoz errazagoa da norbaitek interesa erakutsi eta inbertitzea. Logikoa da. Azken urteotan luzemetraia egin den jendeak saritutako laburmetraia egin ditu aurretik.

**EGUNKARIA.**— Nafarroan hainbat laburmetraia aurkeztu dira azkenotan, badago jendea lanean. Baina jauzirik ez da, ez dituzte gero luzemetraia egin. Zinemaren krisia ala maila eskasa?

**ARMENDARIZ.**— Bi gauzen arteko nahasketa bat da. Laburmetraia egitea abentura bada, luzemetraia askoz ere konplikatua da. Alde batetik ez dago Espainian zinema industria iraunkorrik, eta bestaldetik ez daude istorio edo argumentu handiak, egoizleak ez dute ikusten dirutza handia inbertitzeko paradarrik. Hala ere, nahiko erlatiboa da hau guztia. Oso zaila da

**M**ontxo Armendariz zinema zuzendari nafarra bere laugarren pelikula grabatzen hasiko da heldu den abuztutik aurrera, Madrilén. Elkarrizketa honetan zinemaren gaur egungo egoeraz eta etorkizunaz mintzatu da, eta gero eta nabariagoa den merkatu afera aipatu du. «Gaur egungo pelikula gehienak marketin hutsa dira».

## «Ez dago ilusiorik»

aldez aurretik, gidoia eskuan duzula, pelikularen azken emaitza atzematea. Gidoia lan egiteko tresnarik oinarritukoena da, hor dagoelako pelikularen egitura eta argumentuaren garapena, baina horrekin irudiak egin behar dira gero, eta irudiak, berez, badu mamia, badu neurria, badu planifikazioa eta enkoadrea, eta, horren bidez, paperean guztiz garrantzizkoak izan daitezkeen izugarritzko indarra har dezake irudien bidez.

**EGUNKARIA.**— Duela gutxi esan zenuen egiten ari ziren gauza guztien artean ez zenuela onik ikusten, maila kaskarra dagoela, alegia.

**ARMENDARIZ.**— Ez da deus onik ez dudala ikusten, baina, egia esanda, harritu, hunkitu, ilusio-natu edo identifika naitekeen gauza gutxi ikusten dut. Batez ere orain egiten denak ez duelako gaur egungo errealitatea isladatzen. Hori arazo bat da. Badira barre egiteko edo ongi pasatzeko pelikulak, baina ez dago, salbuespenak salbuespen, errealitatearen islada edo emozio hori, eta hori funtsezkoa da niretzat.

**EGUNKARIA.**— Eta ez duzu ikusten nondik etor daitezkeen hori guztia?

**ARMENDARIZ.**— Jakingo banu mirakulua litzateke ia! Oso zaila da hori jakitea, pelikula batek

erantzun ona izan behar ote duen jakitea oso zaila den bezala. Hala ere, garbi ikusten dut egiten diren pelikuletan oso arrisku gutxi dagoela. Ez dago ilusiorik edo abenturarako gogorik. Eta hori da zinemaren funtsa, zinema bera pertsona batzuen arriskua, ilusioa eta abenturarako gogoak sortu baitzuen. Pelikula handiak horri esker egin dira. Gainera, gogo horrek badu islada gero produktuan, emaitzak oso benetakoak, argiak direlako. Bertan atzeman daiteke talde osoak barruan duen guztia eman duela, eta hori zaila da aurkitzen gaur egungo filmeen artean, gehienak marketin hutsa direlako: «Peli-

kula hainbeste kostatzen zait, orduan hau sartu eta hau kendu behar dut». Zinema merkatu afera bihurtzen ari da, eta, pelikula amortizatu behar dela ukatu gabe, abenturarako gogo errekuperatu behar da.

**EGUNKARIA.**— Aipatzen dituzun merkatu aferek estuki lotuta dauzkate zuzendariak, ekoizleen menpe daudelako. Lehen askatasun handiagoa zegoela uste al duzu?


**ARMENDARIZ.**— Ez dakit, nik ez baitut bizi aurreko egoera. Baina ni hasi nintzenetik honako konparazioa eginez gero, esan dezaket orain traba eta arazo ekonomikoak handiagoak direla. Beraz ez da egia orain nahi diren gauzak egiteko askatasun handiagoa dagoela. Gero eta autozentsura handiagoa dago, eta jendeak badaki zer egin daitezkeen eta zer ez. Eta hori sumatzen da batez ere zinemaren bide berriak zabalteari traba handiak paratzen zaizkielako.

**EGUNKARIA.**— Hala ere, izan badira azkenotan gauza berriak, eta aipatzen dituzun arriskuak onartu dituzten zuzendariak —Medem, Bajo Ulloa—... baina kritikak gogor astindu ditu. Zure ustez, merezitako kritikak izan dira?

**ARMENDARIZ.**— Merezita edo ez... horretan ez naiz sartuko, kritikariarena oso aukera pertsonala baita. Gaur egun dauden zinemagile gazteen artean aipatu dituzun bi horiek dira garrantzitsuenak, Mariano Barrosorekin batera, eta denek lehendabiziko pelikula beraiek eta beren ingurukoek egindako ahaleginei esker atera dute. Horrek askatasun handia ematen dizu. Kritikarena ulertzeko, gauza asko aztertu behar dira lirake. Kontuan hartu behar da Medem eta Bajo Ulloaren lehen pelikulek oso kritika onak izan zituztela, eta bigarrenek jasan zituztela kritika txarrak. Nik uste dut hori dela jende guztiarengan sortzen den erreakzio baten ondorioa. Hau da, lehen pelikula ongi baldin badago, kritikariek gorai patzen dituzte pelikularen alde onak, baina gero bilatzen dituzte alde txarrak. Eta edozein pelikulatan bila daitezke gauza txarrak.

**EGUNKARIA.**— Kritikaren eragin hau nola bizi zenuen zure hiru pelikulekin? 'Tasio-k' oso harrera ona izan zuen, baina '27 horas-ek', kritika ugari.

**ARMENDARIZ.**— '27 horas' filmearekin izan zen kritika orekatua, 'Tasio' aho batez txalotu baitzuten. 'Las cartas de Alou' filmeak Frantzia eta Alemanian



Montxo Armendariz, artxiboko argazki batean.

**O**rain egiten diren pelikulek ez dute errealitatea isladatzen, eta hori funtsezkoa da nerezat».

**K**ritikek gero eta eragin txikiagoa dute nigan. Azkenean ulertu dut kritikaririk onena denbora bera dela».



Espanian baino harrera hobe izan zuen, eta azkenotan estreinatzen den herrietan —Taiwan, Kuban— kritika onak izan dira oso. Hori guztia da zinemaren jokoaren parte bat. Erakutsi edo eskaintzeko egiten diren lan guztietan jendearen iritzia menpe gelditzen zara. Pelikulak jendearen gustukoak izan daitezten egiten ditugu beti, baina gero ez bada horrela gertatzen, ni ez naiz nor esateko gustatu behar zaiela.

**EGUNKARIA.**— Baina kritikek eragina dute zuregan?

**ARMENDARIZ.**— Beti dute eragina, baina gero eta gutxiago. Azkenean ulertzen duzu kritika guztiz subjektiboa dela, eta kritikaririk onena denbora bera dela. Denbora kupidagabea da, eta berak markatzen du zerk iraungo duen eta zer hondoratuko den.

**EGUNKARIA.**— 'Tasio' errodatu zenuenetik hona gauza asko aldatu dira zinemaren munduan. Zinemaren krisia aipatzen da etengabe, baina gero eta pelikula gehiago ikusten dira. Canal Plus telebista katea pelikulak estreinatzen hasi da. Erraza da, barrutik, aldaketa hauetarako egokitzeta?

**Z**inemagintzaren gaur egungo borrokan ahaztu da bideo eta telebistaren merkatua kontrolatzen duenak dena kontrolatuko duela».

razi, eta aurrera egin behar da garai berriekin batera. Oso aldaketa azkarrak eta handiak dira, eta bideoa industria oro eraldatzen ari da. Zinema ez da salbuespena izango. Zeluloidea amaituko da, eta elektronika nagusituko da.


**EGUNKARIA.**— Mundu berri honen alde bat da GATT akordioaren inguruan Europaren eta EEBBen artean dagoen guda. Frantzia da hor tinko dirauen bakarra.

**ARMENDARIZ.**— Haiek dira aurre egiten ari direnak Frantziako zinemagintza delakoa oraindik bizitza apurra daukana. Espainiakoa lurperaturik dago ia, Alemaniakoa aspaldian hil zen, Ingalaterrakoa, independente batzuk salbu, antzera, eta Italian berdin. Hori da gaur egungo errealitatea. Beraz, logikoa zen Frantziak horrela erantzutea, bere interesak defenditzen ari delako.

**EGUNKARIA.**— Espainian akordio batzuk hartu dira zinemagintzari laguntzeko; iruditzen zaizu eraginkorrak izango direla?

**ARMENDARIZ.**— Nik uste dut ikusi egin behar dela legea, eta ongi aztertu; neurriak hartzen ez badira gutxi barru Espainiako zinemagintza desagertu egingo da erabat. Baina borroka honetan oso gauza garrantzitsua ahaztu da: bideo eta telebisten merkatua kontrolatuko duenak dena kontrolatuko du. Ezin da ahaztu telebistan zinema aretoetan baina pelikula gehiago ikusiko direla. Oso borroka latza eta zaila izango da, alde asko baititu.

**EGUNKARIA.**— Uste duzu zine-



«Medem eta Bajo Ulloa dira zuzendari gazteen artean interesgarrienak».

maren 'hondamendia' etorriko dela?

**ARMENDARIZ.**— Ez, ni baikor naiz. Nahiz eta merkatu osoa eskuratu, ezingo dituzte zuzendari eta pelikula independenteak ezabatu. Eta horiek konpetentzia egingo diete. Kontuan hartu behar da gaur egungo Hollywooden bertan badirela independenteak, eta hor bada ederki asmatu eta entrenatutako makina erraldoia. Eta hortik atera diren 'ardi beltzak' dira azken honetan zer-

bait interesgarria egin duten bakarrak.

**EGUNKARIA.**— Non egiten ari dira gauzarik interesgarrienak?

**ARMENDARIZ.**— Zaila da toki zehatzez hitz egitea, baina badira gauza aipagarriak, hala nola Asiatik heltzen ari zaizkigun pelikula guztiak. Irudi eta kontakizunaren neurri guztiz berria dakarkigute horiek. Niri asko interesatzen zait Ingalaterran sortzen ari den zinema independentea —Ken Loach, Stephen

**A**siatik datorren zinema da interesgarrienetako. Iru-diaren eta kontaktizunaren neurri guztiz berria dakarkigu».

Frears—, eta baita Hollywoodeko mugimendu independentea ere: Altman, Jim Jarmusch...

**EGUNKARIA.**— Oso bitxia da 'Adiós a mi concubina' pelikularen kasua. Orain arte ohituta gauden pelikulekin alderatuta oso desberdina izanik ere, —bai neurrian, bai kontatzeko moduan, bai estetikan— arrakasta izan du. Nola azaldu daiteke?

**ARMENDARIZ.**— Horrelako gauzak ez ditut inoiz ulertuko. Komerzializatzeko orduan beti esangō nukeen ez zuela dirurik emango, 'Azul' pelikularekin bezala. Baina ustekabe horiei esker pelikulak edo merkatua ezin dira zientifikoki sailkatu edo kalkulatu. Salbuespen hauei esker zinemak oraindik badauka erakargarritasun eta ilusio hori. Arriskua eta abentura hor dago. 'Tasio' pelikularen gidoiarekin antzeko zerbait gertatu zen. Egoizle asko bisitatu behar izan nituen Eliasekin egon baino lehen. Eta baita Eliasekin ere kalkulatu bat egin genuen pelikularekin zenbat atera genezakeen jakiteko. Ehun milioi pezetarekin konforme ginen, horrek kostuak estaltzen zituelako. Baina bat-batean pelikulak izugarriko arrakasta izan zuen. Inork ez zuen espero, ezta egoizleak ere. Horregatik, nik uste dut gauzak ongi egiten ari diren sinesmen osoarekin egin behar direla, mezezi duen komentzimendurekin. Hori da aukera bakarra.

## Lau urte igaro eta gero

A. B. / IRUNEA

■ Lau urte igaro dira Montxo Armendarizen 'Las cartas de Alou' pantailetara eraman zutenetik. Aurretik beste bost urte emanak zituen zuzendari iruindarrak kameraren atzetik paratu gabe. Berak egin ahal izan duena egin duela dio. «Egun norberak ez du erabakitzen. Merkatua dagoen bezala egonda, nahi duzuna egiteko bide bakarra zerorri ekoizle izatea da. Nik ezin dut eta, beraz, ezin dut nahiko nukeen pelikula egin. Hori izan da pelikula gehiago ez egiteko arrazoia». Komedia «izugarri» gus-tatzen zaiola dio, baina oraindik ez omen du gustuko duen gidorrik aurkitu; beste jenero askorekin berdin, eskuak loturik, alegia. «Gaur egun ez dizute deitzen zerbait eskaintzeko, aldrebes: zerorrek joan behar duzu aterik ate eskuan duzun hori atera ahal izateko».

Lau urte asko da zinemagile batendako. Eta zorte handirik ere ez du izan Armendarizek. Den-

bora horretan proiektu franko izan ditu esku artean, baina arrazoi bat dela bestea dela, huts egin diote. Sevillako Exporako lan «izugarri interesgarria» egin zuen eta azkenean erakutsi gabe gelditu zen, proiektatu behar zuen pabilioia erre zelako. Hala ere, proiektu horietako asko berak bota du atzera, «ilusioa» behar duelako bertan murgiltzeko. Hori dela eta, bilaketak eta zain egon beharrak frustrazioa sortzen diola onartu du. «Neri gus-tatzen zaidana zinema egitea da, eta proiektuak aurrera ateratzeko ahalegin hori askotan hutsa-la denez, mamitzen ez denez, frustrazio pittin bat sortzen du, bai».

Bera bezalako askoren gisa, Madriler aiatu zen urteak direla, koska bertan zegoelakoan, eta hara joatearen derrigorrezko ondorioa pelikulak egitea ez dela onartuta ere, ez du damu joana. «Madrilen egonik harreman eta aukera askoz ere handiago daukazu zinemaren munduarekin, eta proiektu bat eskuan baldin

baduzu, eskaintzeko aukera handia duzu. Harreman hori Iruñetik ere egin daiteke, baina zinemaren, lanbide askotan bezala, gauza asko bilera edo bat-bateko topaketetan erabakitzen dira. Errazagoa da harreman hori lotzea, beren deia zain egotea baino».

Azkenotan sortu diren euskal zuzendariak —Medem, Bajo Ulloa, Urbizu, De la Iglesia, Lazkano— Madrilen harridura sortu dutela dio, eta berak ere ez daki azaltzen belaualdi oparo honen zergatia, baina Euskal Herria zinemarako harrobi ona izan dela gogoratu du. «Kontuan hartu behar da gerra ondotik zuzendari eta zinemarekin harremana zuen jende asko atera dela Euskal Herri-rik, nahiz eta gero Madril edoartzelona joan diren». Egun bere pelikula berrirako taldearen bila ari da, baina «nahiko zori txarrekoa naizenez», Madrilen eta abuztuaren aurretik hasiko dela besterik ez du aipatu nahi izan. Ongi eskarmentatua delako.

**ARMENDARIZ.**— Gaur egungo aldaketak funtsezkoak dira. Zinemak, lehen, antzerkiaren antza handia zuen, gela itxi eta handietan ikusten baitzen. Baina gela txikiak jotzen da azkenotan, eta telebistan eskaintzen diren pelikulen kopurua 300 bider handitu da. Azken bolada honetan aipatzen ari da zinemaren definizio handiko bideoak ikusiko direla laster. Hau da, Manhattanen dagoen morroi batek sar dezake bideo zinta bat, eta, satellite bidez, 6.000 zinema areto kontrola ditzake mundu osoan. Proba hauek banaketa sistema osoa iraul dezakete. Bestalde, telebistaren kontsumoa dago, gero eta handiagoa dena. Kontuan hartu behar da oso, urte gutxi barru aldaketa handiak izango direla, eta eragina izango dutela pelikulen errodairean gainean.


**EGUNKARIA.**— Eta zer aldaketa jasan beharko duzue zuzendariok, zein izango da prezioa?

**ARMENDARIZ.**— Beti pentsatzen dugu pasatako garaiak hobeak izan direla, baina nik uste dut zuzendariaren eginbeharrak ez dela aldaketa handirik izango. Gure beharra da zerbait kontatzea dauzkagun baliabideekin. Beraz, birziklaia egin behar da horretara egokitzeko. Baina ezin da garen teknika edo denbora geldia-





XAKEAN



Iruñeko Hiria torneo itxiaren berderatzigarren ihardunaldiko partida, 1994ko urtarrilaren 5ean jokatu.

J.M. De la Villa, 2.440 ELOkoa (Nafarroa)-Unai Garbisu. 2.555 ELOkoa (Nafarroa).

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5, a6; 4.Ac6,d-c6; 5.0-0,f6; 6.d4, d4; 7.Zd4,c5; 8.Zb3, Dd1; 9.Gd1Ad6; 10. Ae3,b6; 11.a4, Ab7; 12.Zc3, 0-0-0; 13.Zd5, Ze7; 14.Ze7 xa, Ae7; 15.f3,Ac6; 16.Gd8 xa,Gd8; 17.Ef2. Ikus koadroa. Txurien estrategia, erregearen hegalean duen peoi bateko abantailaz baliatzea da. Horretarako, lauki txuritako alfila blokatuta mantendu behar dute, eta posizioa momentuz gehiegi ez ireki. 17...h5; 18. Zd2,Ad7; 19. b3, Ae6; 20.Ee2, Eb7; 21.c4,Ad6; 22. h3,f5; 23. Ag5,Ge8; 24.Ed3, Ec6; 25.Ge1, e4 xa; 26.e4,Af7; 27. Zf3, Ag6; 28.Ge3,Ag3; 29.Zd2, Af2; 30. Ge2,Ad4; 31.Zf3,Af6; 32. Af6, f6. Gero eta argiago txurien nagusitasuna. Alfil beltzak ez du lekuri, eta zaldiak presta dezake aurrerapena.


33.Zh4,Ah7; 34.Zf5,b5; 35. g4,g4; 36.g4,Gd8 xa; 37.Ee3, Gd1. Atzean geratzeak etorkizunik ez zuenez, beltzek kontraerasora aukeratu dute. 38.Gh2,Af5; 39.e-f5,c4; 40.c4, Gd4; 41.Ef3. Txuriek hotz jokatu dute. Badakite 'f5-eko' peoiaren balioa. Helmutatik hurbilago dago. 41...Ed6; 42.Ge2,Gc4. Beste aukerarik ez zen. Txuriek, ordea, kontrolpean dute partida. 43.Ge6 xa,Ed5; 44. Gf6,Ga4; 45.Gf7, Ee5; 46.Ge7 xa, Ed6; 47.f6,c4; 48.Ge2,Ga1; 49. Eg2. Beltzak makurtu ziren. Txuriek estrategia garbi ikusi zuten eta.

## Txeberen bizitza

**T**xebere bere familiarekin bizi zen Ipar Amerikako herri batean. Bere familia gurasoak, bi anaia, eta arreba batek osatzen zuten. Baserri bateko etxe batean bizi ziren. Txebere beti lanean aritzen zen, behiak zaintzen. Bere anaiek ordea lagunekin alde egiten zuten. Txeberek, eskolara ez joan arren, instrumentuak jotzen bazekien. Adibidez pianoa eta kitarra, batez ere. Txikia zenean istripu txiki bat eduki zuen, horren ondorioz eskuineko eskua atake batzuk ematen zizkiola geratu zitzaion. Denbora gehien behiekin egon arren, bazuen astia herrira joateko lagunekin. Halako batean Idoia izeneko neska bat ezagutu zuen eta elkarrekin irteten hasi ziren.

Txebere amarekin bakarrik konpontzen zen ongi, besteekin ez, ordea, batez ere aitarekin. Txeberek Idoiarekin irteten jarraitu zuen, baina ezagutu eta bi hilabeteetara eztabaida baten ondorioz beraien harremanak hautsi egin zituzten. Aitarekin erabat eztabaidan ibiltzen zen eta Idoiarekin izandako eztabaida gutxi baldin bazen, bere anaien egoerak gauzak okerrago jartzen zituen, zeren hauek aitaren alde ateratzen baitziren eztabaida guztietan. Egun batean bere anaia Mikelekin eztabaida izugarri bat eduki zuen, eta ondoren, afaltzerakoan, bere amarekin. Hortik bi egunetara Txeberek 16 urte bete zituen. Igandea zenez beretzako festa bat antolatuko zutela uste zuen. Baina ez zen horrela izan, zere amaren lagun baten etxera joan baitziren, han festa bat ematen zutelako. Orduan Txeberek lagunei deitu zien, baina lagunek aitzakiak asmatu zituzten berarengana ez joateko. Hantxe geratu zen Txebere eta festa, ez opari eta ez ezer.

Inortxo ez zen gogoratu bere zorionak zirela. Bere bizitzako egunik aspergarriena izan zen. Baina denbora pasa ahala zerbait egin behar zuela esan zion bere buruari eta orduan opari bat erostera joan zen beretzako, berak bakarrik ospatuko zituen bere urtebetetzeak.



Antonio Mariñalena  
(LEITZA)



Eguna igarotzen zihohan eta, behien lanak egin ondoren, sukaldeko aulki batean eseri eta telebista ikusten hasi zen, bere gurasoak ailegatu zirenean. Gurasoak han hasi ziren esaten festa zoragarria izan zela, apartekoa. Txeberek ezer entzun ez balu bezala egin zuen. Hurrengo egunean herrian barrera zihohan eta Idoiarekin topo egin zuen, Idoia harroti bat zenez burlaka hasi zitzaion eta momentu horretan atake bat eman zion eskuan Txeberi, eta 'zapla!' zaplasteko bat eman zion Idoiari, hau isil-isilik utzirik.

Etxera itzuli zenerako bere gurasoek bazekiten zer egin zuen eta etxean sartu orduko eztabaidan hasi ziren, kristorenak eta bi esanez. Halako batean amak zaplasteko bat eman zion. Zer egin zuen ohartu zenean zer egin ez zekiela geratu zen.. Barkazioa eskatu edota

errista botatzea, bietatik zer egin pentsatzen ari zela, aitak bere sema ez zela esan zion Txebereri. Hortik aurrera bere semea hilda zegoela. Txeberek, etsipenak harturik, etxetik alde egin zuen eta etxe guztia isil-isilik geratu zen. Kamioilari batek hartu zuen errepidean eta berarekin eraman zuen enpresa batetara, han lanean hasteko. Bere gurasoek, bitartean, haserreturik behi guztiak saldu zituzten. Txeberek hamazortzi urte bete zituzten karneta atera zuen eta enpresan jarraitu zuen lanean. Ez zuen bere izena aldatu, baina beretzako berak ez zeukan ez gurasorik ez anai-arrebarik. 19 urte zituela kamioiaren karneta atera zuen eta trailer batekin hasi zen lanean. Enpresan neska bat ezagutu zuen, Ines izeneko. Egunerok elkar ikusten zuten.

20 urte zituela enpresako finkoa zen trailerrarekin. Uztailaren 20an Inesekin ezkondu zen. Denbora horretan bere gurasoengan aldaketa handia gertatu zen, batez ere aitarengan. Ez zuen ezer jateko gogorik, bakarrik Txeberengan pentsatzen zuten.

Medikuak gaitz bat harrapatu zioten eta esan zioten jaten ez bazuen hil egingo zela. Arazo hori konpontzeko ama Txebere aurkitzen saiatu zen. Aurkitu bai baina ezer ez zuela jakin nahi esan zion, are gutxiago aitaz. Amak aitari esaterakoan dena galduta zegoen. Egun batean lagun batzuk joan ziren bisita egitera aitari. Hauek kalean zeudela izugarriko trailerra gelditu zen etxearen aurrean, eta bertatik Txebere atera zen eta etxerantz abiatu zen mantso-mantso. Txirrina jo zuenean bere ama agertu zitzaion eta begietatik malkoak zeriola besarkatu zuen. Aita ikusi zuenean asko poztu zen eta elkarrekin bazkaldtu zuten. Txeberek esan zion ezin zuela gehiago gelditu, andrea zuela itxaroten eta esanez beste egun batean itzuliko zela bere andrea eta semearekin joan egin zen.

### JUANTXO URDIROZ

## Izengoitiak

Inork esanda da herriari poesia lantzeko geratzen zaion baratze bakarra birao eta goitizena direla. Beraz, gaur gure txokoa goitizenez beteko dugu, denak lekuzkoak, eta euskal joskeraren orden arruntetik aldetzen diren adibideak. Has gaitezen *Lapurdin*. Hona hemen Koldo Ameztoti kontalariak kaleratu zituen zenbait:

Sator biltzaile Ahetzeko; itsas lapur, itsas ohoinak Hendaiako; idi adar makur Akotzeko; arno edale Kanboko; baratxuri jale Lehuntzeko; gormant guziak Baionako; oro sorgin

Miarritzeko; ardi zahar jale Biriutuko; xokolat edale Donibaneko; itsas ondakin biltzale Zokoako; saltsa jale Ainhoako; sorginen beldur Jatsuko; galtza xuri handi Angeluko; nehor ez ageri Apalagako; zoko moko Azkaineko; hiritar uste Luhosoko; moda berri Milafrangako; orok ezkondu nahi Olhetako; miseria kantatzale Gixuruko; ahi jale Urketako.

Hurrengoak Orixeren 'Euskaldunak' poematik ateratakoak dira, *Uitzikoak*:

Mokordo polit, Buztineko; alxia bai ta ipurdirik ez, Joan-



Ez usteak  
zure atean joka

Ürguillütsü handiak  
oro: Montoriko; Jinko  
faltsuak oro:  
Barkoxeko; Phiper  
salzaliak oro:  
Ospitaleko.

dineko; izbeste loiez gaztanbera, Apezeneko; eztela-badela, Garazineko; tirrit, Etxetxikiko; tarrat, Etxeandiko; asi ta pirris-purrust, Ubillosko; zelatari, Txonkoeneko; labea bai ta ogirik ez, Goikoetxeko; andre gerri eder, Otsanbelako.

Esteribarko *Irozen* Javier Irigarayk jasotako hauek:

Juramentu aundiek Erroibarko, geien aundiek Elondrizko; Karrika luze Billabako, tipula zorro Huerteko; Erripa luze Lizoango, errota sendo Erredingo; Lur me franko Zabalko, mugaikide Laboako; Zerrol mea Zunzarrengo, aun ezkabetu Urnizako; Belaun aundia Larraingoako, sopikun ialeak Ardaizko.

Hona hemen Picochet-ek Zuberoan aditu zituenak:

Ürguillütsü handiak oro: Montoriko; Jinko faltsiak oro: Barkoxeko; Phiper salzaliak oro: Ospitaleko; Tratalant, babalaut, gezür handiak oro: Mitikileko; Buhamiak oro: Mendikotako... eta ni hanko!

Eta honi zahar kutsuko amaiera emategatik, XIII. mendeko zenbat goitzen, Nafarroako Foru Nagusitikoak: Andia, Chipia, Gutia, Belza, Zuria, Ona, Arçaia, Aroza, Unaia (betzain), Unidea (Inudea), Zamarguina, Iguraia (basazain), Zalduna, Mutila, Emazteona de Guendulain; Beia, Cerria, Erlea, Bikorra (Pikorra), Surra (sudurra).



**E**z da Nafarroa trikitixaren kabia izan. Duela mende bat eskas sortutako soinu hau denboraren poderioz Euskal Herri osora zabaldu bada ere, ez da gure lurraldean talderik edo afizio berezirik sortu. Hemen txistuak eta gaitak nahiago. Hala ere, eta Sakanako zenbait zaleturen ahaleginari esker, Nafarroako I. Trikitilari Txapelketa ospatuko da laster.

## Trikiti-trikiti, txapelketa



Euskal Herriko Txapelketan ez dute aukera handirik izan nafarrek.

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Baten bat datuokin harritu badaiteke ere, Nafarroan badira dagoeneko dozena erdi trikitixa eskola, eta horietako batzuetan berrogeitik gora bikote. Txapelketa honetako antolatzaile den Patxi Agirre arbizuarrak duela bost urte osatu zuen eskola, trikitixa zaletasunagatik. «Ikusten nuen ekarriz gero jendeari gustatu egiten zitzaioela», dio, «eta nire buruari esan nion, baina hemen zergatik ez?». Harremanetan jarri zen orduan Billabonako trikitixa eskolarekin; Martin Aginalderekin hasieran, eta hark Asier Gozategi bidali zuen. Hasteko lau haur gutxienez behar zirela, eta etxetik bertatik atera zituen Patxi bikoteak: alaba eta bi iloba. Hortik aurrera gora egin du eskolak etengabe. Egun Irurtzundik Urdiainera bitarteko herrietako haurrak daude trikitixa eskolan.

Hemen sortzen ari dira kimu berriak, beraz, baina garbi dago oraindik gauza franko ikasi behar dela tradizio eta eskola askoz handiagoa dutenengandik. Euskal Herriko Trikitixa Txapelketan parte hartu zuten hainbat bikote nafarrek, baina kanporaketan ikusi zen maila nahiko altua zela, eta finalen ez ziren sartu. Irakasleak ere handik datoz, eta jendearen harreran ere diferentzia sumatu dute hemengoek. Izan ere, denak ez baitira berdin dantzatzeko trikitixaren doinua aditzen dutenean. «Gipuzkoan segituan jartzen dira dantzan»,

dio Irune Agirre soinu jole arbizuarrak, «eta hemengoek gehiago kostatzen zaie». Haiek, gehienetan, taldeetan ateratzen dira plazara, eta bikoteak jotzeko aukera orain izango dute, txapelketarekin.

**KANPORAKETAK ARBIZUN ETA DONEZTEBEN** Bi kanporaketa izango ditu txapelketak. Bata Arbizon eta bestea Donezteben. Lehendabizikoa lotuta dago, Arbizuko Udalak bere gain hartu baititu kanpora-



Pandero jole gutxi da Nafarroan.

ketaren gastu guztiak, eta Malekako herriarekin ere nahiko aurreratuak daude gauzak: festen barruan egingo litzateke jaialdia, eta, hori dela eta, udalean harrera ona aurkitu du Agirrek. Finala Iruñean, Sanferminetan egingo da, eta Peñek badirudi antolaketaren ardura hartuko dutela. Hala ere, kontuan harturik bikote frankok eman dutela izena, litekeena da hirugarren kanporaketa bat egitea. Horrela suertatuz gero, Goizuetan egingo litzateke ekitaldia.

Antolaketa guztia bere gain hartu du trikitizale amorratua den Patxi Agirrek. Horrelako saltsetan sartzeko arrazoia, hemen ere trikitilariak atera ditezkeela erakusteko gogo. «Guz ez gara gipuzkoarrak baino gutxiago, beraz, hemen ere egin dezakegu. Gainera, txapelketa batekin haurrak motibatu egiten dituzu, gauzak desberdin egiten dira, eta gehiago ateratzen dira kalera». Hau guztia prestatzeko Euskal Herriko Trikitixaren Txoko Elkartearen laguntza izan du, eta emaitzak «koskorak» izango direla dio arbizuarrak. Izena eman dutenen artean 8 ur-

tetik jende heldu samarra bitarte, eta sariak oraindik erabakita ez badituzte ere, politak izango direla dio Agirrek.

Izena emateko epea zabalik dago Maiatzaren 21a arte, eta zerrenda horretan izango diren bikoteen arabera, finalurreak antolatuko dira ekainaren bigarren hamabostaldian ospatzeko. Finala Iruñean izanen da, Sanferminetan, eta zortzi puntuazio al-

tuenak ateratzen dituztenek parte hartuko dute bertan. Izena eman ahal izateko Nafarroan bizi behar da, eta ohizko piezak jo beharko dira kanporaketetan. Jende handia ikusten bada trikitixa edo fandangoa jo beharko da. Base-

rritar erara jantzita agertu beharko dute trikitilariak, eta finalean parte hartzen dutenek trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arinarina jo beharko dute. Epaimahakoek puntuatzeko neurgarri hauek kontuan hartu beharko dituzte: behaztetako trebetasuna, zailtasuna, neurria eta eritmoa dantzarako eta espresioa. Izena emateko interesatuta daudenek telefono honetara jo beharko dute: 46 03 35 (Patxi) edo 943-69 21 21.

**T**xapelketaren finala Iruñean, Sanferminetan, egin nahi dute, eta badirudi peñek antolakuntzan lagunduko dutela.

## «Hemen soinu handiak»

P. U. / IRUNEA

«Hemen soinu handiak, bai, jotak eta halakoak, baina trikitixarik ez da izan», dio Patxi Agirrek Nafarroan trikitilariarik zergatik ez den izan galdetzen zaionean. Soinu handiak, beraz. Izan ere, oraindik zenbait herritan trikitixa jo behar dutela esaten dutenean «eta hori zer da?» galdetzen baitiete. Hala ere, oso ezagunak ez badira ere, ez da Nafarroan hain berria izan esku soinuaren doinu alaia, eta horren lekuko dira txapelketarako izena eman duten zenbait bikote heldu samar.

Bizkaian eta Gipuzkoan aspaldian hasi zenari jarraituz, duela zenbait urtetik hona trikitixa eskolak sortu dira han eta hemen, eta Lesakan, Goizuetan, Leitzaan, Arbizon, Altsasun eta Lezaunen ere bada gaur egun trikitixa ikasteko aukera. Eskola batzuk, egun, berrogeitik gora bikoterekin. Trikitixak soinu jolea eta pandero jolea behar du, jakina, baina

haurrek esku soinua nahiago, nonbait. Horregatik, Nafarroako txapelketa honetarako baldintza berezia jarri behar izan dute: pandero jole gutxi direla eta, horietako bakoitzak bi soinu jolearekin jo ahal izango du.

Txapelketan, esan bezala, 30 bat bikotek eman dute dagoeneko izena, eta kanporaketei begira, «guztiz nerbiosturik» daudela diote Arbizuko trikitixa eskolako neskek. Plazetan franko arituak badira ere —Bizkaian eta Gipuzkoan ezezik, Valladoliden ere jo dute eta Katalunian aritzeko deia jaso dute dagoeneko—, gehienbat taldeetan aritu direlako. «Jendearen aurrean zuk bakarrik jotzea askoz ere zailagoa da» dio Irune Agirre arbizuarrak, eta horrela berresten dute Onditz Artieda etxarriarrak eta Miren Mendiñueta arbizuarrak ere. Hala ere, txapelketaren ateetan «urduia» jarriko direla dio Patxi, eta haiek finalera heltzeko asmoa dute. Nafarroako lehen txapelkunak izango lirateke.



## «Lirikoa naiz ni»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Nolatan abiatu zinen kantagintzaren bide korapilatsuan barna?

**MIKEL ELIZAGA.**— Betidanik euskaraz abesteko zaletasuna izan dut. Euskararen munduan sartzen hasi nintzanean betikoak ezagutu nituen, Mikel Laboa, Oskorri, Imanol... Hori-ekin sortu zitzaidan grina hori. Orain dela hamabi urte Tximeleta izeneko taldea sortu ge-

ezagutu nuen. Formakuntza horrek eragin handia izan du nere musikan, batez ere armonia aldetik. Etiketa bat jartzekotan lirikoa naizela esango nuke. Lirikoa naiz. Poemak erabiltzen ditut, eta poema horiek nire lanetan eragina dute. Eserita eta gustura egonda gozatzeko musika egiten dut.

**EGUNKARIA.**— Esan al daiteke, beraz, minorientzako musika dela?

**ELIZAGA.**— Nik ezin dezaket

izan zen, baina nire aurkezpen eskutitza dela esan daiteke.

**EGUNKARIA.**— Egun Patziku Perurenaren bertsoetan oinarriturik proiektu berri batean murgildurik omen zabilta?

**ELIZAGA.**— Nik beti hitzen falta izan dut. Lagun batek 'Apaiz gaztearen kantutegi zaharra' gomendatu zidan aproposa izango zelakoan. Koplak dira, hain modan dagoen bertsoaritarako lana, baina poeta batek egina. Liri-

jolea topatu nituen, eta horiekin entseiatzen hasi nintzen. Perkusionea eta baxua aurretik grabatzea erabaki genuen, eta orduan aurrera atera gintezkeela pentsatu genuen.

**EGUNKARIA.**— Nondik egin zenuten aurrera?

**ELIZAGA.**— Joan den astean Lizarrako Kultur Etxean izan zen estreinaldia. Biharamunean lagunarteko aurre estreñoa egin genuen Iruñeko Arrano Beltza elkartearen aurki Niza kafetegian jendearean aritu aurretik.

**EGUNKARIA.**— Zer moduz?

**ELIZAGA.**— Gustura. Ni kontent, eta gainontzekoak ere

«Barrutik ateratzen zaidan musika egiten dut, agian ez dudalako betiko kantautoreen lana gehiegi entzun».

pozik daudela uste dut. Entzuleek ere, gezurtiak ez badira behintzat, ontzat eman zuten.

**EGUNKARIA.**— Eta estreinatu ostean zer?

**ELIZAGA.**— Azken bolada honetan Euskal Herriko udalei zintak eta hitzak bidaltzen ari naiz, eta horiekin batera guri buruzko informazioa. Orain ikusi beharko dugu zenbateren irensten duten amua.

**EGUNKARIA.**— Grabatzeko asmorik?

**ELIZAGA.**— Badut Diputazioaren bekatxo bat. Eskasa bada ere, zorionez anaia musika teknikaria dut eta bere estudio txoa badut, eta gutxieneko kalitatea duen grabazionea egiten ahalko dugula uste dut. Patziku Perurenaren poemetan oinarrituriko zazpi kanta, Gabriel Zelaiaren kanta bat, poema batean oinarritua, eta instrumentala, 'Agur t'erdí' II izeneko grabatuko ditugu. Behar adina diru lortzen badugu zinta ezezik konpaktoa ere aterako dugu.

Mikel Elizaga

KANTAUTOREA



SOSLAIA

## Musikaz blai

Artean mutiko zela, gaitero ibili zen plazaz plaza. Egun, gaitarik gabe bada ere, ibilbide bera egiten du Duo Paradiso berbena taldearekin, herriz herri, parrandaz parranda. Musikatik eta musikarentzat bizi da. Dantzarako musika joz eskuratzen du bizitzeko behar duen dirua, eta kantautore izateko bizi da. Duela urte askotxo hartu zuen kantagintzaren bidea, eta dagoeneko kilometro franko egin ditu. Aspaldian Nafarroako Gobernuak antolaturiko kantautore lehiaketa irabazi zuen, duela bi urte 'Agur t'erdí' lehen zinta karrikatu zuen, eta egun beste erronka batean sarturik dabil: Patziku Perurenaren 'Apaiz gaztearen poemak' musikatzan hain zuzen ere.



Pianoaren aurrean, etxean.

OSKAR MONTERO

nuen Lizarran, eta euskarazko kantak nik abesten nituen. Nahiz eta gero irakasletza ikasi, musikan buru-belarri sartzea erabaki nuen, eta hemen nago.

**EGUNKARIA.**— Non kokatuko zenuke zeure burua egungo euskal kantagintzaren barruan?

**ELIZAGA.**— Egia erraten badut, ni oso alendua eta berezia nabil, nafarra izateagatik edo. Ateratzen zaidana egiten dut nik, barrutik ateratzen zaidan musika, agian ez dudalako kantautoreen lana asko entzun. Hala eta guztiz ere, zenbait kantatan Laboaren eragina suma dezaket, eta garai batean Lluís Llachek eragin handia izan zuen nigan. Eraginik handiena, dena dela, Bartzelonan hartu nuen. Bertan ibili nintzen musika ikasten, eta bertan jazz eta jazz irakaskuntza

hori esan. Musika konposatzen dudanean ez dut hori pentsatzen. Hoberena litzateke ahalik eta jende multzorik handienak entzutea nire musika.

**EGUNKARIA.**— Kantagintzan hasi zinenetik hamaika urte igaro direlarik, ez duzu oraindik diskoa plazaratzerik lortu. Zaila da gero kantautore izanda diskoa grabatzea.

**ELIZAGA.**— Kantautorea izanda ez dakit, baina ezezaguna izanda bai, zaila da.

**EGUNKARIA.**— Dena dela, baduzu 'Agur t'erdí' izeneko zinta.

**ELIZAGA.**— Duela hiru urte pentsatu nuen neukan material guztia zinta batean bil neza keela. Ez zen lan biribila izan. Kanta batzuk garai batekoak ziren, beste batzuk beste batekoak. Agian estilo aldetik nahaste-borraste handi samarra

koa da, ustezko apaiz baten istorioa. Oso poema ezberdinak dira. Badira lirikoak, irri-garriak, haur kantak... Izan ere, liburua hiru atal ezberdinetan banandurik dago. 'Egunak' atalean apaizak natura maite zuela eta zenbait koplak biltzen dira. Gero neska itsu batekin maitemindurik zegoen, eta hori da 'Gauak' ataleko istorioa. Azkenekoz bera kantu zalea zen, eta herriz herri joaten zen kantuak biltzen, eta hori da hirugarren atala, 'Gaiuekoak' deitzen dena. Atal bakoitzetik pare bat koplak hartu nuen.

Patziku Perurenaren bertso horiek duela bi urte musikatu nituen. Gero, orain dela urtebete, moldaketak egin nituen boskote gisa ibili ahal izateko. Duela sei hilabete Andoni Sagastibeltza akordeoi jolea eta Fermintxo Garaikoetxea piano

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

